



karate

federación vasca
euskal federazioa



KARATEKO EUSKAL FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE ERREGELAMENDUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Erregelamendu honek arautzen ditu Karateko Euskal Federazioaren Batzar Orokorra eratzeko araubidea eta presidentea eta Zuzendaritza Batzarra hautatzeko modua.

Bertan aurreikusten ez denari dagokionez, ezinbestez jarraituko beharko zaio EAEko Kirolaren Legean, EAEko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, hauteskunde-material hori garatzeko ematen diren xedapen publiko guztietan eta Federazioaren estatutuetan xedatutakoari. Gainera, osagarri gisa aplikatuko da Administrazio Prozeduraren erregulazio orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hauteskunde-araubidearen erregulazio berezian eta orokorrean xedatutakoa.

2. artikulua. Hauteskundeak lau urtean behin egingo dira, udako joko olinpikoak egiten diren urteetan.

Beti ere, administrazio publiko eskudunak finkatuko ditu horretarako unea eta epea.

3. artikulua. Botoa askea, zuzena, berdina eta sekretua izango da.

4. artikulua. Hautesle Erroldan dauden datuak eta hauteskunde-prozesuan lortutako datu guztiak jendaurrean jartzearen eta tratatzearen helburu bakarra botoa emateko eskubidea bermatzea izango da, eta ezin izango dira erabili ez utzi bestelako helburuetarako.

Nolanahi ere, datuak babesteko arloan eskumena duen eta indarrean dagoen legean ezarritakoa aplikatuko da.

Hauteskundeetarako deialdia

5. artikulua. Karateko hiru lurraldeetako federazioetako hauteskunde-prozesuak amaituta, Karateko Euskal Federazioko presidentek hauteskunde-prozesuaren tramiteak hasiko ditu. Era berean, lurralde-federazio batek azaroaren 30a baino lehen bukatzen ez badu hauteskunde-prozesua, Karateko Euskal Federazioak hauteskunde-prozesua hasi ahal izango du.

Deialdia erabakita, jendaurrean jarriko da Karateko Euskal Federazioaren lokaletan, eta federatuen artean zabalduko da. Aurrekoaren osagarri gisa, iragarki bat jar daiteke egunkarian, lurralde historiko bakoitzean gehiago zabaltzeko; 60.000 eurotik gorako aurrekontua duten federazioek nahitaez egin behar dute.

6. artikulua. Karateko Euskal Federazioko jarduneko presidentek, gehienez hilabeteko epean, Hauteskunde Batzarraren bilkurarako deia egin beharko du, dagokion hauteskunde-prozesua has dadin.



Epe hori igaro eta Hauteskunde Batzarraren deialdirik egin ez bada, Federazioko Batzar Nagusiko edozein kidek egin ahal izango du Hauteskunde Batzarraren bilerarako deia, baldin eta Federazioko kideen %5 ordezkatzen badu gutxienez.

Batzarraren eraketa

7. artikulua. Hauteskunde Batzarrak Euskal Federazioaren Batzarrean dagokion ordezkari-kopurua esleituko dio hiru lurralde-federazioetako estamentu bakoitzari, lurralde-estamentu bakoitzaren lizentzia-kopuruaren eta guztizkoaren arabera, urte olinpikoko lehen seihilekoan eta aurreko urtean federatu izan direnen artean. Euskal Federazioaren errolda hiru lurralde-federazioen errolda guztien batura da.

Karateko Euskal Federazioaren Batzar Nagusia federazio hori osatzen duten estamentuetako ordezkariak eratuko dute, gehienez ere 30 kidek; horiek Hauteskunde Batzarrak zehaztuko ditu, hautaketa egin aurretik eta onartutako errolda ikusita.

Zehazki, hauek osatuko dute Batzarra:

- A/ Kirol-klub eta -elkartetarako ordezkariak, Batzarreko kide guztien % 70ekoa.
- B/ Batzarreko kide eta boto guztien % 15eko ordezkariak kirolarien estamentuarena izango da.
- C/ Guztizkoaren % 7ko ordezkariak teknikarien estamentuarena izango da.
- D/ Kopuru osoaren % 8 epaileen estamentuarena izango da

8. artikulua. Ordezkarien esleipena lurralde-federazio bakoitzari jakinaraziko zaio, eta Euskal Federazioaren iragarki-oholean eta hiru lurraldeetako federazioen iragarki-oholetan jarriko da.

9. artikulua. Lurralde-federazioetako batzarrek botazioak egingo dituzte kideak izendatzeko. Karateko Euskal Federazioko Batzarreko kide ere izango dira, Federazioaren Hauteskunde Batzarrak erabakitakoaren arabera.

10. artikulua. Karateko Euskal Federazioaren Batzarreko kide izateko hautatutako lurralde-batzarretako ordezkariak nahitaez izan beharko dute lurralde-batzarreko kide.

11. artikulua. Lurralde-federazioek beren batzarretan erabakitako izendapenen berri eman ondoren, Hauteskunde Batzarrak Karateko Euskal Federazioaren Batzarra eratuko du.

Hauteskunde Batzarra

12. artikulua. Karateko Euskal Federazioko Hauteskunde Batzarra izango da hauteskunde-prozesua bultzatu eta behar bezala garatzen dela zaintzeko organoa.

13. artikulua. Hauteskunde Batzarreko kideak eta ordezkariak zozketaz hautatuko dira, Hauteskunde



Erroldan dauden pertsona fisiko guztien artetik.

Hauteskunde Batzarra kide bakar batek osatzen du.

Hautesle izateko aurkezten direnek ezin izango dute inola ere Hauteskunde Batzarra eratu. Hautagaia Hauteskunde Batzarreko kideren bat baldin bada, izendatutako ordezkoa kargutik kendu, eta haren lekua hartu beharko du.

Hautatuek kargua onartu beharko dute. Baina lan, familia, ikasketa, osasun edo antzeko arazoengatik beren eginkizunak behar bezala betetzeko eragozpenak dituztenek ez dute kargua onartu beharrik, ez erantzukizunik izango.

Hauteskunde Batzarreko kideak lau urtez jardungo du karguan. Hala ere, Batzar Nagusiak edo Kirol Administrazioak kideak kargutik kendu, eta beste batzuk izendatu ahal izango ditu agintaldia amaitu ondoren.

Kargutik kendutako Hauteskunde Batzarrak jardunean jarraituko du beste bat izendatu arte.

14. artikulua. Hauteskunde Batzarrak eginkizun hauek izango ditu:

A/ Hautesleen errolda eta hauteskunde-egutegiak onartzea.

B/ Aurkeztutako kandidaturak onartzea, aldarrikatzea eta argitaratzea.

C/ Hauteskunde Mahaia izendatzea.

D/ Hautagai hautetsiak aldarrikatzea.

E/ Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak edo eskaerak ebatzea, eta Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekursoak ebatzea.

F/ Hauteskunde-aginduak interpretatzea eta arauetan atzematen diren hutsuneak betetzea.

G/ Boto-txartelen, gutun-azalen, hautagaiantzako inprimakien eta antzeko dokumentuen eredu ofizialak onestea.

H/ Federazioaren egoitza soziala ez den beste leku batzuetan hauteskundeetarako baimena ematea.

I/ Egiten zaizkion kontsultak ebatzea.

J/ Diziplina-epaileari jakinaraztea hauteskunde-prozesuarekin zerikusia duten eta diziplinaren arau-haustea izan daitezkeen gertakarien berri.

K/ Hauteskundeen eta haien emaitzen gainean eragin zuzena duen edozein gai.

15. artikulua. Hauteskunde Batzarraren erabakiak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta Federazioaren iragarki-oholean argitaratuko dira.

Hauteskunde Batzarrak hartzen dituen erabakien aurka errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Hauteskunde Batzarrari berari, bi egun baldioduneko epean, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, zazpi egun naturaleko epean.

Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta Hauteskunde Batzarreko kide guztiek sinatu beharko dute.



Hauteskunde Mahaia

16. artikulua. Hauteskunde Batzarrak, hautagai izango ez diren pertsona fisikoen artean zozketa eginez, hauteskunde mahai bat izendatuko du, hiru kidek eta beste hainbeste ordezkok osatua. Mahaiburuak eta idazkariak Hauteskunde Batzarrak berariaz izendatuko ditu, edo, izendapen hori egiten ez bada, mahaiburuak izendatuko du adinez nagusia, eta idazkariak.

Hauteskunde Mahaia Karateko Euskal Federazioaren egoitzan eratuko da.

Hauteskunde Mahaia eratzeko, gutxienez bi kidek egon beharko dute bertan.

Hauteskunde Mahaiaren akordioak eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta, berdinketarik izanez gero, presidentearen botoak izango du lehentasuna. Aurkako botoek, behar bezala arrazoituta, erantzukizuna kenduko diote eman duenari.

Hauteskunde Mahaiaren erabakiak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta Federazioaren iragarki-oholean jarriko dira ikusgai.

Hauteskunde Mahaiaren erabakiak Hauteskunde Batzarraren aurrean aurkatu ahal izango dira, bi egun balioduneko epean.

Hauteskunde Batzarrak Hauteskunde Mahaiaren akordioaren errekursoari edo inpuñazioari buruz hartzen duen ebazpena Kirol Justiziako Euskal Batzordean errekurritu ahal izango da, 7 egun naturaleko epean.

17. artikulua. Hautagaiek kontu-hartzaileak izendatu ahal izango dituzte edo beraiek jardun, Hauteskunde Mahaiaren aurrean.

18. artikulua. Hauteskunde Mahaiaren eginkizunak

A/ Bozketak behar bezala egiten direla zaintzea.

B/ Boto-emaielen nortasuna eta hautesle-izaera egiaztatzea.

C/ Emandako botoen baliozkotasunari buruz ebaztea.

D/ Botoak kontatzea, botoak eman ondoren.

E/ Bozketari buruzko beste edozein gai ebaztea.

19. artikulua. Hauteskunde Mahaiko idazkariak akta idatziko du, eta bertan adieraziko da zenbat hautesle bertaratu diren edo bozkatu duten, bozketan izandako gorabeherak, bozketaren ondorioz aurkezten diren erreklamazioak, emandako baliozko botoak, boto balioabeak eta boto zuriak.

Akta presidentek, idazkariak eta mahaikideak sinatuko dute, eta berehala igorriko da Hauteskunde Batzarrera, boto balioabeekin eta inpuñatzen diren botoekin batera.



Presidentea eta Zuzendaritza Batzarra hautatzea

20. artikulua. Karateko Euskal Federazioko presidentek Federazio honetako Batzarreko kide izan beharko du, edo pertsona juridikoa den kide baten ordezkari gisa jardun.

Karateko Euskal Federazioaren presidentetza bateraezina da Federazioko Batzarreko kide den klub, kirol-elkarte edo beste edozein pertsona juridikoren presidentetzarekin. Federazioko presidente aukeratuz gero

Gainera, Karateko Euskal Federazioko presidentetza bateraezina da Federazioaren lizentzia duen klub, elkarte edo beste edozein entitate edo pertsona juridikoren ordezkariarekin. Presidentetza pertsona juridikoaren ordezkari bati egokituz gero, ordezkaritza utzi beharko du.

21. artikulua. Presidentetzarako eta Zuzendaritza Batzarrerako kandidaturak idatziz aurkeztu beharko dira beti, kargua lortu nahi duten pertsona guztien izen-deiturak, NANA eta lizentzia adierazita. Horrez gain, hautagai-zerrendan zein lanpostu edo eginkizun agertzen den adierazi beharko da; ezer zehazten ez bada, zerrendako burua presidentetzara aurkezten den pertsona dela ulertuko da. Batzarrean pertsona juridiko baten ordezkaria dela egiaztatzen duten agiriak ere erantsiko dira.

22. artikulua. Hautagaitzak zazpi eguneko epean aurkeztu ondoren, Hauteskunde Batzarrak erabakiko du onartzea ala ez onartzea.

Batzarraren garapena

23. artikulua. Hauteskunde Batzarrak egingo du Batzarrerako deia, hauteskundeen egutegian ezarritako egunean, gai-zerrenda honekin:

1. Batzarra eratzea
2. Hauteskunde Mahaia eratzea
3. Presidentea eta Zuzendaritza Batzarra hautatzea

Batzarra lehen deialdian eratuko da kideen gehiengoa bertaratzen bada; bigarren deialdian aski izango da heren bat bertaratzea.

24. artikulua. Batzarra bildurik, berehala eratuko da Hauteskunde Mahaia.

25. artikulua. Hautagaien zerrenda bakarra badago, bertan daudenak izendatuko dira presidente eta Zuzendaritza Batzar, botaziorik egin gabe.

Zerrendarik ez badago, Hauteskunde Batzarrak beste epe bat jarriko du hautagaiak aurkezteko. Bigarren epe horretan ere hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, Hauteskunde Batzarrak egoera horren berri emango dio jarduneko presidentetzari, Ohiz kanpoko Batzar Nagusirako deia egin dezan, bertan, Federazioaren desegitea eztabaidatzeko.



26. artikulua. Batzarra hasi ondoren, presidente eta Zuzendaritza Batzarrerako hautagaiak aurkeztuko eta hautatuko dira.

Hautagai-zerrenda boto baliodunen gehiengo soilaz hautatuko da, ateratzen diren portzentajeen arabera.

Boto-orri bakoitzean zerrenda bateko hautagaiei bakarrik eman ahal izango zaie botoa. Mahaiak botoak kontatzeari ekingo dio berehala, eta gehiengo lortu duen zerrendako kideak Karateko Euskal Federazioko presidente eta Zuzendaritza Batzar izendatuko dira

Berdinketa izanez gero, beste bozketa bat egingo da. Berdinketak badirau, hirugarren eta azken bozketa egingo da. Hautagai-zerrendetan berdinketarik bada berriro, Hauteskunde Batzarrak zozketa egingo du hautagai-zerrenden artean.

27. artikulua. Presidente berria eta Zuzendaritza Batzarra aldarrikatu ondoren, hura Batzarreko eztabaidak zuzenduko ditu, hautaketaren inguruan Hauteskunde Batzarrean aurkez daitezkeen erreklamazioei kalterik egin gabe.

28. artikulua. Hogeita lau orduko epean, Hauteskunde Mahaiak Hauteskunde Batzarrari igorriko dio akta, eta horrek hiru egunetan argitaratuko ditu emaitzak.

Emaitzak zazpi egun naturaleko epean errekurritu edo inpugnatu ahal izango dira, Kirol Justiziako Euskal Batzordean eta Hauteskunde Batzarrean bertan, bi egun balioduneko epean.

Xedapen gehigarriak

Bakarra. Agintaldian bajarik izanez geroz, lurralde-batzarrean dituzten ordezkioak arituko dira haien lekuan.





karate
federación vasca
euskal federazioa



REGLAMENTO ELECTORAL DE LA FEDERACION VASCA DE KARATE

Disposiciones generales

Artículo 1. El presente Reglamento regula el régimen de conformación de la Asamblea General y la elección del Presidente o Presidenta y Junta Directiva de la Federación Vasca de Karate

En todo lo no previsto en el mismo se estará a lo dispuesto en la Ley de Deporte del País Vasco, en el Decreto 16/2006 de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, así como en todas las disposiciones publicas que se dicten en desarrollo de este material electoral, y en los Estatutos de la Federación. Además, supletoriamente será de aplicación lo dispuesto en la regulación general del Procedimiento Administrativo y en la regulación especial y general del régimen electoral vigente en el País Vasco.

Artículo 2. Las elecciones tendrán lugar cada cuatro años, coincidiendo con los años de celebración de los Juegos Olímpicos de verano.

En todo caso el momento y periodo será fijado para ello por la Administración pública competente.

Artículo 3. El voto tendrá carácter libre, directo, igual y secreto

Artículo 4. El tratamiento y exposición pública de datos contenidos en el Censo Electoral, así como todos los datos obtenidos durante el proceso electoral tendrán como exclusiva finalidad garantizar el ejercicio del derecho de sufragio, no siendo posible su utilización ni cesión para ninguna otra finalidad.

En todo caso será de aplicación lo previsto en la ley competente y vigente en materia de protección de datos.

Convocatoria de elecciones

Artículo 5. Finalizados los procesos electorales de las tres Federaciones Territoriales de Karate, el Presidente o Presidenta de la Federación Vasca de Karate, iniciara los tramites del proceso electoral. Igualmente, si una Federación Territorial no finalizase su proceso electoral antes del 30 de noviembre, la Federación Vasca de Karate podrá iniciar su proceso electoral

Acordada la convocatoria, quedará públicamente expuesta la misma en los locales de la Federación Vasca de Karate y se difundirá entre sus federados/as. Como complemento a lo anterior cabe la posibilidad de insertar un anuncio en el periódico para una mayor divulgación en cada territorio histórico, siendo una obligación para las federaciones con un presupuesto superior a 60.000€.

Artículo 6. El Presidente o Presidenta en funciones de la Federación Vasca de Karate deberá convocar, en el plazo máximo de un mes, una reunión de la Junta Electoral para que se dé inicio al correspondiente proceso electoral.

Si transcurrido dicho plazo no hubiere procedido a la convocatoria de la Junta Electoral, cualquier



colectivo de miembros de la Asamblea General de la Federación, que represente al menos un 5% del total de componentes de la misma, podrá convocar la reunión de la Junta Electoral.

Constitución de la Asamblea

Artículo 7. La Junta Electoral atribuirá a cada estamento de cada una de las tres Federaciones territoriales el número de representantes que les corresponde en Asamblea de la Federación Vasca, en proporción al número de licencias de cada Estamento territorial y total, de entre aquellos federados que hubiesen cumplido la condición de ello durante el primer semestre del año olímpico y además de, el año inmediatamente anterior. El Censo de la Federación Vasca es la suma del total de los Censos de la tres Federaciones territoriales.

La Asamblea General de la Federación Vasca de Karate estará integrada por los representantes de los distintos Estamentos que integran dicha Federación, en un número no superior a 30 miembros, a determinar por la Junta Electoral antes de la elección y a la vista del Censo aprobado.

En concreto la Asamblea estará integrada por.

A/ Una representación para el Estamento de Clubes y Agrupaciones deportivas del 70 % del total de miembros de la Asamblea

B/ Una representación del 15% del total de miembros y votos de la Asamblea corresponderá al Estamento de Deportistas

C/ Una representación del 7% del total corresponderá al Estamento de Técnicos y Técnicas.

D/ Una representación del 8% del total corresponderá al Estamento de Jueces y Juezas.

Artículo 8. La atribución de representantes se notificará a cada Federación territorial y se expondrá en el tablón de anuncios de la Federación Vasca y en los tabloneros de anuncios de las tres Federaciones territoriales

Artículo 9. Las Asambleas de las Federaciones territoriales celebrarán sus votaciones para la designación de los miembros de la misma que lo serán de la Asamblea de la Federación Vasca de Karate en conformidad con lo acordado por la Junta Electoral de esta.

Artículo 10. Los representantes de las Asambleas territoriales elegidos para ser miembros de la Asamblea de la Federación Vasca de Karate deberán ser necesariamente miembros de la Asamblea territorial

Artículo 11. Una vez comuniquen las Federaciones territoriales las designaciones acordadas por sus respectivas Asambleas la Junta Electoral procederá a conformar la Asamblea de Federación Vasca de Karate



Junta Electoral

Artículo 12. La Junta Electoral de la Federación Vasca de Karate será el órgano encargado de impulsar el proceso electoral y de velar por su correcto desarrollo

Artículo 13. Los miembros de la Junta Electoral, así como los suplentes, serán elegidos por sorteo de entre todas las personas físicas incluidas en el Censo Electoral.

La Junta Electoral la compone un solo miembro

En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral quienes fueran a presentarse como candidatos o candidatas, si esta condición recayese en alguno o alguna de los componentes de la Junta Electoral nombrada, deberá cesar y ocupar su lugar el suplente designado.

Las personas elegidas deberán aceptar el cargo. Pero quedarán dispensadas del mismo y exentas de responsabilidad aquellas que por razones laborales, familiares, académicas, de salud o análogas se encuentren impedidas para cumplir adecuadamente sus funciones.

La duración del ejercicio de miembro de la Junta Electoral será de cuatro años sin perjuicio de la que la Asamblea General o la Administración Deportiva puedan destruir a sus miembros y nombrar a otros de la finalización del mandato.

La Junta Electoral cesada o destituida actuará en funciones hasta la designación de una nueva

Artículo 14. Son funciones de la Junta Electoral las siguientes.

A/ Aprobar el Censo de electores y el Calendarios electoral

B/ Admitir, proclamar y publicar las candidaturas presentadas

C/ Designar la Mesa Electoral

D/ Proclamar los candidatos electos

E/ Resolver las impugnaciones, reclamaciones o peticiones que se presenten, así como resolver los recursos que se interpongan contra las decisiones de la Mesa Electoral.

F/ Interpretar los preceptos electorales y suplir las lagunas normativas que se puedan detectar

G/ Aprobar los modelos oficiales de papeletas de voto, sobres, impresos para las candidaturas y demás documentos análogos.

H/ Autorizar la realización de los actos electorales en lugares diferentes a la sede social de la federación

I/ Resolver las consultas que se le formulen

J/ Informar al Juez Disciplinario de aquellos hechos relacionados con el proceso electoral que pudieren ser constituidos de infracción disciplinaria

K/ Cualquier cuestión que afecte directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados

Artículo 15. Los acuerdos de la Junta Electoral se notificarán a las personas interesadas y serán publicados en el tablón de anuncios de la Federación



Los acuerdos que adopte la Junta Electoral serán recurribles ante la propia Junta Electoral en el plazo de 2 días hábiles y ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete días naturales.

De cada sesión se levantará acta y deberá estar firmada por todos los miembros de la Junta Electoral.

Mesa Electoral

Artículo 16. La Junta Electoral mediante sorteo entre los electores personas físicas que no vayan a ser candidatos, designará un Mesa Electoral compuesta por tres miembros, así como un número igual de suplentes, siendo su Presidente o Presidenta y Secretario o Secretaria aquellos que así se designe expresamente por la Junta Electoral o en caso de no procederse a dicha designación el Presidente o Presidenta lo será el o la de mayor edad y el Secretario o Secretaria el o la de menor edad

La Mesa Electoral se constituirá en el domicilio de la Federación Vasca de Karate.

Para constituirse la Mesa Electoral será necesaria la presencia de al menos dos de sus miembros

Los acuerdos y decisiones de la Mesa Electoral serán adoptados por mayoría simple y en caso de empate prevalecerá el voto del Presidente o Presidenta los votos contrarios debidamente motivados eximirán de responsabilidad a quien así lo hubiera emitido.

Las decisiones de la Mesa Electoral serán notificadas a los interesados y serán expuestas en el tablón de anuncios de la Federación.

Las decisiones de la Mesa Electoral serán impugnables ante la Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles.

La resolución que adopte la Junta Electoral sobre el recurso o impugnación del acuerdo de la Mesa Electoral será recurrible ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de 7 días naturales

Artículo 17. Los candidatos podrán designar interventores o actuar ellos mismos como tales ante la Mesa Electoral

Artículo 18. Son funciones de la Mesa Electoral

- A/ Velar por el correcto desarrollo de las votaciones
- B/ Comprobar la identidad de los y de las votantes y su condición de electores o electoras.
- C/ Resolver sobre la validez de los votos emitidos
- D/ Efectuar el recuento de votos, una vez terminada la emisión de los mismos
- E/ Resolver cualquier otro asunto relativo a la votación



Artículo 19. El Secretario o Secretaria de la Mesa Electoral redactará el Acta en la que se relacionará el número de electores asistentes o votantes, incidencias ocurridas durante la votación, reclamaciones que se formulen como consecuencia de las misma, votos válidos emitidos, votos nulos y votos en blanco.

El acta será firmada por el Presidente o Presidenta, el Secretario o Secretaria y el vocal, remitiéndose inmediatamente a la Junta Electoral juntamente con los votos nulos o los que se impugnen.

Elección de Presidente o Presidenta y de la Junta Directiva

Artículo 20. El Presidente o Presidenta de la Federación Vasca de Karate deberá ser miembro de la Asamblea de esta Federación o actuar como representante de un miembro que sea persona jurídica.

La Presidencia de la Federación Vasca de Karate es incompatible con la Presidencia de un Club, Agrupación deportiva o cualquier otra persona jurídica que sea miembro de la Asamblea de la Federación. En caso de ser elegido o elegida Presidente o Presidenta de la Federación

La Presidencia de la Federación Vasca de Karate es, además incompatible con la representación de un Club, una Agrupación o cualquier otra entidad o persona jurídica que cuente con licencia de la Federación. Sí la Presidencia recayera en representante de persona jurídica la misma deberá cesar en dicha representación

Artículo 21. La candidatura a la Presidencia y Junta Directiva deberá presentarse siempre por escrito, con expresión del nombre y apellidos, DNI y licencia de todas y cada una de las personas que optan al cargo, además deberá hacerse constar a que puesto o función se presentan dentro de la candidatura en caso de no especificarse nada se entenderá que la persona que encabeza las lista es la persona que se presenta a la presidencia. También se adjuntará en su caso documentación acreditativa de ser el representante de un miembro persona jurídica en la Asamblea.

Artículo 22. Presentadas las candidaturas en el plazo de siete días la Junta Electoral resolverá sobre su admisibilidad.

Desarrollo de la Asamblea

Artículo 23. La Asamblea se convocará por la Junta Electoral en la fecha fijada en el Calendario Electoral, con el siguiente Orden del día.

1. Constitución de la Asamblea
2. Constitución de la Mesa Electoral
3. Elección de Presidente y de la Junta Directiva

La Asamblea quedará válidamente constituida en primera convocatoria si asisten la mayoría de sus



miembros y en segunda convocatoria bastará la asistencia de la tercera parte.

Artículo 24. Reunida la Asamblea, se constituirá inmediatamente la Mesa Electoral.

Artículo 25. Si solo hubiere una lista de candidatos se proclamará Presidente o Presidenta y Junta Directiva a quienes estén en la misma, sin realizarse ninguna votación.

Si no hubiere ninguna lista la Junta Electoral procederá a fijar un nuevo plazo para la presentación de candidaturas. Si tampoco se presentaren candidaturas en este segundo plazo la Junta Electoral procederá a comunicar dicha situación a quien ejerza la Presidencia en funciones a fin de que se convoque una Asamblea General Extraordinaria en la que se debata la disolución de la Federación por dicha causa.

Artículo 26. Comenzada la sesión de la Asamblea se procederá a la presentación de los candidatos a Presidente o Presidenta y Junta Directiva y a su elección.

La elección de la candidatura se producirá por la mayoría simple de los votos validos en función de los porcentajes resultantes

En cada papeleta únicamente se podrá votar a los candidatos o candidatas de una lista. Se procederá inmediatamente al recuento de votos por la Mesa y se proclamará Presidente o Presidenta y Junta Directiva de la Federación Vasca Karate a los integrantes de la lista que haya obtenido la mayoría.

En caso de empate se procederá a una nueva votación. Si persiste el empate se procederá a una tercera y última votación. Sí de nuevo empataren las candidaturas la Junta Electoral procederá a efectuar un sorteo entre las candidaturas.

Artículo 27. Proclamado el nuevo Presidente o la nueva Presidenta y Junta Directiva, aquél o aquella pasará a dirigir los debates de la Asamblea, sin perjuicio de las reclamaciones que en relación con la elección puedan presentarse ante la Junta Electoral

Artículo 28. En el plazo de veinticuatro horas la Mesa Electoral remitirá el Acta a la Junta Electoral, la cual en tres días publicará los resultados.

Los resultados podrán ser recurridos o impugnados en el plazo de siete días naturales ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva y ante la propia Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles



Disposiciones adicionales

Única. Las bajas que se causen durante el mandato serán sustituidas por quienes les sustituyan en la Asamblea territorial



Rafael Gallego de Corpa
SECRETARIO FVK/EKF



José Manuel Colás Mosquera
PRESIDENTE FVK/EKF

